



Efoma. - Batikano'fik.

Urte Bafi zoriotsuak, opatzeko Aita Santuak ikertzale asko izan ditu. Euren artean Latefien Ordeleriak izan dira. Urtearen azkenengo iru egunetan amabiko taldeetan 36 inguru latefietako Ordeleriak zorionak opa izan eutsoezan. Ofez gañera, kardenal, Gotzain eta Gopatzen nagusiak be ikertu eben. Ba'dau lana Doipuruak; otoi dagigun orain arte lez kementsu yafaitu dayen.

Idazle ospetsu baten erlotza.

Lengoantokirik ez da, gaur ipinten dogu izpar au. Paul Bourget, pantzetar idazle ospetsua Gabon egunean il zan. 84 urte zituan. Bere gasteoroan otz samafra izan zan, baña apurka-apurka oartu eban, katolikotasu zintsoa zala bide bakafa, eta osoan besarkatuta, bizi izan dan kistar-erlotzaz lufeko bizitza amaitu dau. Safitan katoliko «biurtutako» letz etsi dabe, baña berak esan eroyan, ori beratzaz ezin zeinkeala esan, nozbait zalantzan ebilela irudi afen, bere bafuan asaben sinestea beti izan ebalako.

Azken 'Ikurtonak, bere aizkide bafuko Lebreton yosulaun aba ta idazle bikañak emon eutsozan, eta il aufetik Verdier Paris'ko kardenal agurgafiak ikertzeko zoriona izan eban. Il ototzeko eleizkizunean be Mesa, kardenal onek esan eban.

Nobela-egile bikain onek lan gogoz egin eban bere bizitza gustian, eta 60 idazti argitaldu zituan. Pantzetar katolikoak idazle bikain bat galdu dabe, eta katoliko ez diranen artean, beronen eretxiak eragipen andia izan dabe. 1852'n Amiens'en yayoa zan eta lenengotan osagiletzako ikasketak asi ta itxi zituan, idazletzari osoan ekiteko.

Yugoslavia'fik.

Yugoslavia'ko Kroatia'tarafak, Katoliko-Ekintzan zintso lan egiten diardue. Batez bere, erlejiño-gayetan sakondu barik gizartean gauza onik ezin egin leikela ta onafitzat artuta, onetantxe gogoz alegintzen dira. Gasteen garbitasun eta oitura onak gauzarik edefenak dira-ta, ofetarako goi-bizitza biotzetan sustraitu bear. Oin bafiz lan au beafekoago da, komunistak, ixileko asmo onek zabaltzen diarduela yakin da:

1'go. Ikastoletara ez yoan, uts egin, bardin eleizkizunetara. 2'n. Gauza onetarako txindi-laguntza eskatzen dabenean, ez emon ezer be. 3'n. Ikastoletako gauzak eta tresnak apurtzeko alegiñak egin. Irakatsi edefak, esan leike norbaitek. Ba olangoxe gauzak irakasten dabez komunista ondatzaleak. Eta yakina, gasteria ofetarako gertuago egoten da-ta...

—Onen aurka kroatiatar katoliko ikasleak bazkun begikoak irasi ditue. Aspaldiko urteetan «Domogoj» deritxon bazkunetan lan egiten dabe, euren izparfingitaz «La Fiaccola» izparfingia dabeja. Stepinez Gongotzain agurgariaren menpean, gasteok Katoliko-Ekintzan sartu dira, kistar maitasunez zabal-kunde lanetan yauparie laguntzeko. Oraintsu lanak asi aufetik neskatil eta mutiñak Yaunartza orokor bat egin eben. Eta Spolato'negin dabena Erteze-govina'n be egin dabe.

Emen Pandzic pantzeskatar abak itzaldi autsu bat egin eutsen Eleiza ta Aberi maitasunatzaz, Katoliko-Ekintza, slabi ta kroatafen etsai dala, etsayek zabaldu dituen guzufei erantzunaz. Batez be katolikotafen lanak katoliko-ikastolak aldeztara yoten dabe, ofetantxe, beste toki batzuetan lez, etsayak ardurarik andiena ipinten dabe ta.

—Oraintsu Stepinaz agurgafia, «pantzeskatarfen asmoak» gaitzat artuta Simrak Agurgafiak egin daben itzaldi baten ondoren Pantzeskatarfen Buruaren eskuetatik Irugafen Gopatza-

soñekoa artu eban. Bere Gongoter kia'ren ardureagaz, zama astura leporatu yakolako, pantzeskatar izan nai dabela azaldu dau, zama ori obeto eroan al izateko.

Austria'ko Gotzaiñak langileen aldez

Igaro diran Gabon jayak zirala-ta Austria'ko Gotzain gustiak izenpetuta idazki bat argitaldu dabe, ain beafizan andian surkitzen diran langileen aldez Katoliko gustiei dei egiten dautse, bear izan andian aurkitzen diran austriatar langilei laguntzeko eskatuaz. Langileen eskubideak kementsu aldeztu ondoren, atgi ta garbi diñoe Austria'ko agintariak euren eskubideak aldeztuko dituela. Langileak Eleiza baño laguntzale oberik ez dabe izan eta ez dabe izango be. ¡Nozbait begiak zabalduko ba litue!

Bruxelles'en ikasle Gizarte XIII'n Astea.

Gizarte Aste au andikiro ospatu da Bruxelles'en, van Roey kardenala lendakari zala.

Gizonik yakitunenak eztabaidetan itz egin dabe, euron artean Paul Zeeland, gobernu-lendakariak, Robbens bakaltseñak, Picard Agurgafiak ta Leclercq abade yakitun eta irakasle bikañak eta abar. Batzar onetan adiraldi dan gaya; izparfingitza. Izparfingien elburua, beafizana gizarte maña gustientzat, zintzotasun beafa, eragipena eta abar sakonkiro adiraldi ziran. Artu ziran erabagiak Don Agustín Francois beneditar eta Gizarte onein idazkariak bildu zituan. Batez be «gaste» ta «zafen» artean izparfingietzaz dagon alkar aitua ezina, adiraldi zan, gasteetan sukotasun geyago eta zafetan biotz zabal geyago bear zala aldeztuaz.

Argitalben lizuneren aurka.

50 977 muti gaste ta 40.000 neskatil katolikotafak, eta eurokaz beste bazkun batzuetako gasteak Beljique'ko bakaldunari idazki bat zuzendu dau, tsoe, izparfingi ta argitalben lizuneren aurka, legeak agintzen dabena gogorkiroago betetako eskatzen.

—Txile'n be ez dagoz lo. Txile'ko Epaiakaritza-Gurenak, epaikari gustiei artu daben erabagi baten bafi emon dautse gai oneri buruz. Agintariak oartu dabenez, ikastetze inguruetan idaztiño, irudi eta idazti lizunak efuz zabaltzen diardue, gasteriaren oitura onentzat gustiz kaltegarri diranak. Epaiakaritza-Gurenak, zabal-kunde galgafi onen kalteak ikusirik, epaikari gustiei agintzen dautse, gogor eta gogotsu, onetan legeak zapaltzen dituenak efuki barik zigortzeko. Ederto egina!... eta emen be yafaitzaiek izango ba'litu, gurea izango litzake poza!...

100.000 kistar bafi iru urtean.

Dechaume abak «Les Missions d'Afrique» deritxon aldizkingian izpar pozgafiak damoskuz, Ouroundi'ko miñiñoen auferapena azalduaz.

Ouroundi'ko eleizak, aundiak izan afen, txiki egin dira iru urtean 100 mila kistar egin diralako. Abade-ikastetxeakaz bardin gertatu da. Lendik Ouroundi'n 176 mila kistar egozan eta gertatzen beste 216 mila dagoz, eta oneitatik 84 mila urte bi oneitakoak. Gorju Gotzain agurgafiak, 34 lekaide, 10 Anai, 60 abade, 11 bertakoak eta 585 katekista laguntzale ditu; iges 822 mila autorkuntza ta 4 miloi yaunartza izan ditue. Ez dau lan makala egin...

M.'tar G.

Jaungoikoaren legeo aginduak ibargutxi'tar J. G. 6 lauerleko



Naparroa

Iruña

¡Atertu du! Euskaldun befi batekin nindoalarik, autotik atera eta nik ari «atefi dago», eta arek niri ¿zer itz da ori? Itz afonta alde guztietako euskaldunek darabilatena eta euri egitetik gelditu dela, adiarazten duena.

Tomás Mendizabal, Eugiar jaun eskualduna befiki il da Iruñen, amabi egunez eriandi egonik.

Jaunkoa baitan bego gizon aberatsa, langilea, ikasla eta zintzoa. Euskara maite zuen eta euskaldungoari efotik lotua bizi izandu da bere bizi guztian: aren seme, anai-afebak, biotzez deitoratzen ditut eta Jaunkoa otioitzen, lagun ditzala zendu denaren alde otioitz egiteko.

Aita Etxafi, Lafaun Baraibar-ko seme, jesuitak, leenengo meza eman du «rito oriental» delakoan; Rusia-ko misiolari egiteko.

Jaunkoak lagun detzala.

Segovia-ko apezpiku jauna Iruñen egona da eta zenbeit egunez gaxo egonik, juan den ostiralean bere etxeratu zen; Efuki etxeko Superioraren anaia da.

Nazaret-eko Artzainak, badabiltza, auzoz-auzo; elizaz-eliza guasen-ak kantatzen.

Iruñeko «Eusko-Abesbatza» ere, juan den igandean Barañain delako gaxotegiko elizan «Refice» meza ederki eman zuten, Olaizola zuzendari.

Oraiko aldian, bilkurarik ez da, non ta juaten diren itxurak artzen espadire.

Baño; elizako aldare nagusian *foto*grafia ateratzen, etzait ongi eta etzait eder.

Azken gobernadore jauna, bospasei egun baizik ez da egon. Orai, azken larun batean etofi zen befia; iñork ez dakigu nor den, nongo den eta zerika den.

Afagafi da, gobernuak emengo izendatzen dituen buruzagiak; geienetan, España-ko beste mutufetik ekartzen dituela; ots, gureganik berexienak.

Gobernu befia bizi da orañik; noiz artio ez dakigu; agian iraunen du aaldun jaunen azkera egin artio.

Nola nai den, agindu zofoztak eman ditu bilkura guztietan biltzen eta mintzatzen diranez eta berdin agerian, bear den guztien begirapena begiratzeko.

Alkate jaunak ere, zofozki meaxatzen ditu, aragiki mota guztiekin saltzera eldu direnak. Beren argitasun guztiekin etofirik ere, saldu baño leen merkatuko albaiteroaren balmena beafezkoa du saltzeko.

Efege egunean «Jostari» taldeak Euskal jai polita egin zuen, jostailu politik eta sei bildotx aufen artean zozketa eginik.

Kari'stak ere «Olimpia» delakoan zerbeit egin zuten.

Eliza nagusiko ebsagoan, argi zerbeit geiago egin omen du Rodriguez Rajo «Portugués» delako Burgos-en bildu zutenak, eta juan den ostiralean Iruñaratuak.

Bizkaya

Mañaria.

Esker-ona agertu.

Gabonzafez, urte-zafian arturiko mese'de gustijekatik Jaungoikuari eskefak egiteko, «Te Deum» abestu zan. Ori ondo!

Urte-bari.

Gabon-jai gustijetan lez, Urte-bafiz be, elizkizun edefak osoatu ziran. Eta, egun ofetan, antziñako edanduari jafafuaz, «urte bafi-batzelak» be, inun diran abestijak abestuten etxerik-etxe ibili ziran. ¡Zelako abestijak baña! ¡Alako sasirik! Afuten be zeregiñak dagoz gero...

Gexorik.

Egunokaz gexorik aurkitzen dira Lafa'tar Ixidore andera ta Bizkafet' tar Dorota gixona. Osasuna opa.

Juan-Etoñjak.

—Emen Gabon-jayak igarota Abadianora juan da, Befizbeñtia'tar Todore neskatila.

—Ereño'tik etofi zan Elordietat' tar Miren andera.

—Igazdez egon ziran emen Azilona'tar Joseba Paul abade bafija ta bere anayak. Jaun onek, Bafenetxea'tar Polentzi abade jauna ikusten etofi ziran.

Eremata.

Okeliaren efemata Durango'ko Mikel andi arakiñak artu dau; mile

Argi eta garbi efan omen du, nola arek eta Ramon delako biek, ebsgoa egin zuten Arias'ek argiturik eta bidaturik.

Ebasten zutena arendako, bost mila pezeta eskeindurik. Arias-en emaztea befiz bildu dute, ustez ta biek batean ibili direla. Aldiz mexikanoa bere-gain utziko omen dute.

Apez ikasle batek befehun pezeta bilatu omen zituen eta berehala iri zaiden eskuetan eman.

Irujo jauna Nafafoako eta aaldunen gora beretan gauzak argitzen ari da. «Pensamiento Navarro» gaitzurik, efan dio itz gordinak eta gezufak; baño Irujo jaunak beartuazi du efan dituenak biltzen guztia ezpada ere. Nola nai den dela iñork ez dezake ukatu Irujo jaunak buru ernea dela; ainitz dakiela eta Nafafoaren alde iñork ez duela arek *aña* egiten.

Urtero bezala, juan den igandean, ilunabafean eldu izan ziren Efegeak; auzotan leenik eta gero Iruñeko aur beartsueri, eskoletan bildurik, jostailuak banatu zituzten.

Urtero bezala, Efege egunean eliza guztietan *goterki* ko eskea; beti bezala, ongi bildu zen: meza geienetan argiturik nola den bidezkoa egiten den eskaria.

Madrid-en zuten fuboleko partida Osasuna eta Madrid-en artean, auek irabazi zuten 6 ta 2 gelditurik.

Azken merkatuan, 415 txefi saldu ziren, ogeita amasei-amazapi eta emezortzi sos kilo bakotza.

Ogelta bost aretxe; ogeita amabost sos kilo; eta amabi bei.

Urbilen aldi artio Jaunkoak ala nai duelarik.

LAREKO

zortzireun eta befogetamar laurlekuan. Igaz baño geyago ordairdu dau. Oin, okela ona ta edefa ekafi dagijala, ta kitu...

Lengo urteko gora berak.

Igaroriko urtlan, efi-ontan, amaika jayotza ixan ziran; erijotzak amabi, ta ezkontzak bi. Amabi erijotzari, lengo urtiari begiratu ezker, eskotxo eristen dautso; jayotzari ostera polito; ta ezkontzari bafiz, ufi ta mufi... Ezkontza bi gitxitxo da ixan be. Jentia, ezkontzen bildur edo... Bai-ba. emeko neskarz batek, ezkontzia azkenengo «kaferia» dala, eskaten daragoyo beti-ta... Jentia bafiz, olakoxe esanak be, batzuetan «apetxotan» artu...

MAÑARIKO

Barinaga.

Jayotza.

«O'eibef.» basetzeko senar-emazte gestieri Josu umetxu Jainkozkuak, alabatxu polit bat ekafi dautse eta Jesusa ixenaz ugutzau dabe. Ama-alabatxuak ondo dagoz eta ufengorako euzkel ixenaz ez aztu. Nik entzutia dodanez; politikuak ez diran asto belafijek baba salda usañe euzkel ixenatzaz badarabilela. Ba oferi ezer sinisteko beste era batera lan egin biarko dabe, ta ezin badabe, euren azkondaran geldi dagozala eta bakia olantxe. «Aditzale onari itz gitxi» eta buakioz zorijon agufak umetxu jayopafiaren gurasuentzat.

Dabiltzanak.

Ezkon bafijak urte zafa igaroten euren gurasuen ondoan emen ixan dira eta urte askotan olantxe.

Nekazarijak.

Euren urteroko bazkarija alaitasun edefian egin dabe igazi dan astelen eberdijan. Ia ba, nekazari jatofak olantxe urte askotan; baña ufengorako mafazkiloak be ondo etofiko litzakez eta aztu baik ekafi gero...

TXEPETX ORDE

Beñiatua.

Jayotzak.

Ezun gitxiren bafuan jayotza bi izan doguz pafokija onetan. Elixpuru-nausi basefietzeko Juan Azpiri ta Marzelina Orbe senar-emastiak nes-kato eder bat izan dabe, lelengua, ta Felisa izentzat jafi dautse. Baita Jose Betolaza ta Mercedes Olabafiak be mutiko galant bat izateko zoriona izan dabe, onek be lelengua. Bateatueran Domingo imiñi dautse izentzat. Zorionak.

Ezkontza

sakramentuaren bidez alkatu dira, auzi-izindako alkartasunian, Augusto Laka, pafokija onetako organujotzale trebia ta Juana Argoitia andereñua. Ezkondu aufegunian emon eutsen euren lagunai askari eko merienda eder bat eta ezkontza-egunian bazkari ugari ta bikain bat, Maria Afiola'ren jatetxian. Zetan esan be eztago bai «despedida de soltero» askarian eta baita ezkontza-baskarian be umore ona etzala palta ta koziñerak goi-goian jafi ebiezela. Zorionak Augusto ta Juanita.

Eskon-deyak.

Efegen-meza nausijan iregafi ziran Gregorio Mugartegi ta Julia Alegria'ren lelengo ezkon-deyak.

ALBIZRARI